

GARIZUMA LUZE BATEN IKASKIZUNAK

*Abenduaren 6an, Durangoko Azoka egunetan, Berrizen guardia zibilek gazte bat atxilo hartu zuten. Gure semeak eta bere emazteak oporrak hartu behar izan zituzten. Euskaraz **gure** semea, **gure** aita, **gure** arreba... esan obi da. Idatzi honetan **nire** darabilt, ez besteena nireganatu guran, ez, baizik eta nigan, nire baitan, nire kontzientzian legokeen zabarkeria zakarretara jaurtitzeko, nire **ni**-a garbi ikuziaz **gure** horretara zerbait positiboa eramanez.*

Barrenengo hedeak hausten direnean halako hustura sentazio bat hedatu zaidala sumatzen dut eta argazki hau gris ilunean atera zaidala begitantzen zait. Udaberria loran, enarak por paskua florida gure balkoipera iritsi dira ostera ere, kukua noiz entzungo zain... eta etsia eta ahul neure burua, indarge gogo.

Ene historia hurbilean, deblauki, nire buruaz, nire barrenaz, nire teoriez eta nire ideologiez tesi bat osotzeko beste ikasi dut. Edo gutxienez ikasitakoak praktikan jartzeko ez badu balioperririkoa izan dela.

Ideologiaren esparruan, nire burua oso sentiberatzat izan dut betidanik. Gurasoen gerrako ibilerak, gure Herri honetako mila eta bat pasadizo krudel, lagun hurbilen jipoitzeak, espetxeratzeak... manifestaldi bat eta beste eta gero, asteburua ere ba-

denez, sagardotegira txuleta eder bat aurrean eta eskubideez eztabaidan, aho zintzurreraino sagardoz bete eta izarrei begira *eusko gudariak*, irrintzi zoli batekin eta lotara. Iraultzaren zerga biziki ongi ordainduta. Edo halako beste asteburuan gaueko ordu txikitari kotxea hartu eta pieldetoro zeharreko bidexketan gure herriko heroi bat edo hiru ikustera joan etorria eta astelehenetako tertulian nohayderetxoko terapian aldran hustu eta gero beste kapitulu bat bete dugula eta sinesturik asteko lanari dagiogu indarrez eta gogotsu, bide batez *atzo eskerrak Ustaritz bizkor ibili zela zeren bestela Betisek enpatearen gola sartuko zigun eta...*, *ikusi huen Titinek a ze nolako pilota eka- rri zian zabaletik, jendartetik...* ogiz bakarrik ez baikara bizi!

Sentibera naiz bai, nire herriko korua zuzentzerakoan auke- ratzen ditudan doinu eta letrekin. Halako ospakizunari holako letra edo alderantziz.

Sentibera naiz, irakurtzen ditudan liburuen hainbat pasarte- tan arnasa hartu behar izaten dut begiak lausotzen zaizkidala- ko eta Ría 2000 inguruko bankuetan begirada disimuloz jaso- tzen dut bista bere onera itzuli arte.

Eta honela zihoakidan nire bizitza, txarka ta abarka, nire egunerokoak ondo betetzen nituela uste on ziuzez. Eta elizara joaten nintzen domekero eta harrokeriarik gabe eta umil an- tzean, baina fariseuaren tenplantzaz: *Hemen nauzu Jauna, as- te bonetakoak bete ditut, ia denak ondo, jakina, butsunen bat edo beste izan dut, baina badakizu abuldadeak ere izaten di- tugu eta, ardo zabarraren... Jauna, Zuk aukeraturiko Noe za- barra berak ardoaren bentajak ezagutu zituen eta guk ba, ba- dakizu... eta ni gizoznezkua naizen aldetik, harra, Jauna, Bil- boko Gran Vian pasian doazen ipurtikera dotoreei begiratzea ez eidazu esan gaizki dagoenik, Zuk Zeuk eginak baitira, gure bista gozatzeko, sikira!*

Eta nire izena eta fama urteetan eman eta jantzi zidaten egunetan, “Euskal Liburu eta Disko Azoka” egunetan semea eta bere emaztea,-progreontzat seme-alabak-, agertu zitzaizki-

dan Durangoko azoka jendetsu horretan. Nire irribarrea eta harrokeria puntua, ni gazte eta seme-alaba ezkonduak jendeari aurkezteko gogoz. Presaz zetozen eta opor egun batzuk hartzera zihoaztela esanez. Nire ezpainetako irribarrea izoztu egin zen bat-batean, euron begiradan zakur izuaren, ikararen keinuaz ohartu bainintzen.

Lehen lezioa. Semeak esan zidan: *guk euskaldunok elkarri laguntzen ez badiogu, lagun bati aterbea emateko gai ez bagara, nori nori eta noiz lagundu behar diogu...?* Bere betidaniko adixkide bati atea ireki zio(te)n. Eskola laguna, kirol laguna. Hile batzuk barru epaiketa izango zuen. Urduri zegoen. Ikaraz berauen atea jo zuenean. Goseak eta hotzak hartuta. Urduri. Atea klax-klax. Ireki eta... lagun errukarri bat. Laguna eta errukarri itxura. Zelan zabaldu ez atea! Zelan ez eskaini etxearen beroa! Lagun bati.

Nik egingo ote nuen halakorik? Nik, Anttonmarik, kristau, ezkerreko, euskaldun, teoriko bihozbera, zer egingo ote nuen halako bat ate aurrean agertuez gero? Ez ba, halako familia ere badut eta gaurkoagatik ezingo zinduzket hartu, arriskua ere badakizu..., bokadillo bero bat eta berrogeita hamar, ehun euro eta kotxez agian harako puntura edo holako puntara eramango zaitut, joño, baina badakizu...

Nire seme-alabek ebanjelioko, edo giza arau primario bati bat bateko erantzun zuzena eman zioten *“maite egizu zure lagun burkoa zeure burua lez,... jazartua nintzen eta babesa eman zenidaten...”* Gure kareta jantziriko mundu honetan, zenbait aktitude praktikan jartzea delitu datekeen honetan, nire seme alabengandik lezioa jaso dut.

Naturaltasun osoz, harako Zireneko Simonen bide, ekintza berbera burutu beharra izan zuten gazteok. Bere lanetik zetozen eta lagun ikaratu bat atean. Etxean zeuden lan egin ondoren atsedenean eta atea din-dong! Eta lagunaren gurutze astuna, -gaur antsietatea, stressa, epaiketa bat laster-, gurutze hori eramangarriago, arindu egiten diote. Eta errespetuz konpara-

tzen ditut Zireneko eta Veronikarekin, baina “*hauetariko bati dagiozuena Niri dagistazue*”. Naturaltasun osoz eta geroak lekarkeen kalkulurik barik, atean dagoen lagunari bihotza eta mahai beroa zabaltzea eta ematea. Hau da lezioa!

Jokaera hau, dena den, delitu tipifikatua omen denez, aida-nez, ibilbide duin bat aurkitu nahiean eta gazteokin bat, Madril-eko Audientziara tarte egoki baten aurkezteko erabaki genuen. Arrazoi bidez ez nuen erantzunik: lagun bati atea ireki eta jana eta beroa ematea zer dela eta dugu delitu? Baina delitua omen denez zer egin seme-alabekin, ez teoriarik praktikan baizik, zer egin sasira bidali, -komunikabideen arabera hala zeuden jada-, ala Audientziara eta handik espetxera?

Bigarren lezioa. Burutik kendu ezinik neukan Bibliako Abrahamen pasarte hura: Yavhek Abrahami beronen bihotz gogoa probatu guran bere seme Isaak erre oparizat eskaini egiola eskatu zion. Abraham oso atsegabeturik baina Yavheren agindua betez altarean txondorra prest eta bere seme maiteari labankada ematera zihoala aingeru batek besotik heldu eta eraso geldiaraziz alboko arantzartean zegoen aharito bat eman zion. Buru makur aitortu behar dut Abraham, Isaak eta aharitoaren episodio hori pisua izan dudala hiru hilabetetan. Nire seme-alabak Audientziako altare ez demokratikoan eskaini bai baina aingeru jagoleak huts egingo zidala banekien. Ziur nengoen. Nondik aterako zuen bada antxumarik edo bildotsik gazteok komunikabide guztietan(?) ekintzaile bihozgabe eta batez ere burugabeenak lez agertzen baitziren!

Umil-umil aitor dezadan nire duda-mudak, nire erneguak, nire Jaunagan konfiantza ezak, nire harrokeriak beste belar-rondoko lehun zuzentzaile bat izan duela. Hainbat ezagun eta lagun eta senide izan dira, izan gara otoitzean, erreguz Jaunari, arrenka Andre Mariari, edo sineste hauetatik at d(g)audenak euron bihotzeko uhin positiboan erkatu nahiean. Sentsaziolismotik ihesi eginez ez dut esango miraria izan zenik baina martxoaren lehen egunetan aingeru jagoleak espetxeratzeko

beso-agindua geldiarazi zuen eta aharirik onena seme-alabekin etxeratzea izan zen.

Hirugarren lezio biderkatua. Egun bi lehenago, amaren urtebetetze egunean, igandez, seme-alabok atxilo hartu zituzten baserritik bertan, hurbilean. Egun eguzkitsua, ederra, baina belzturik inguru osoa. Etxetik irten ezina. Inor sartu ezina. Auzoko emakume bat, nik ez dakit inongo alderdikide edo bozka zeini ematen dion, manifestaldietan ez dut behin ere ikusi, ertzainen hesia hautsi eta gurean agertu zen ama zaharra eta adimen gutxiko arreba etxetik ateratzeko. Egingo ote nukeen nik halakorik auzoan, antuste, bildurti kakalarrri honek? Hara hemen auzoko emakume honen kuraia eta naturalitatez gure gazteon delitu ia berbera egina: auzoa lagundu, sokorritu!

Emaztea eta biok isolaturik egun osoz baserrian. Notizieroe-tan gure baserria eta... , hau samina, hura zurrumbiloa, noraeza, zer da hau! Baina isolaturik? Ez. Goizeko hamaiketatik gaberdirarte, eguraldia lagun, hainbat herritar. Ez denak veinteañeroak. Attitte-amama, guraso gazte, gazteak, umeak,... Egongo ote nintzen ni horrela egun osoz, nahiz eta igandea izan, ala agian handik pasa, kunplitu eta, jakina, dabilenari gertatzen omen zaio esanez aspaldian familiarekin kaferik ez dudala hartu aitzakiarekin, hanka! Belarriak, bekokia makurtu beharra daukot, harroputz honek! Herritar arrunt, normaltzat izan dut ene burua. Zergak ordaindu, lan egin, dantza, musika, euskara dotorea,... gorago esan dut: Fariseua! Zerbait naizelakoan eta herritar arruntek, zelan emakumeek halan gizakumeek bihotzezko elkartasuna, kimika esan ohi zaio orain, elkartasun beroa, ordainik ez duen elkartasuna eskaini didate. Zer ikasi, zer barneratu badut, ni, ni izango banaiz!

Arratsalde horretan berean Bilboko Gotzaigoko Bikario Nagusia bera ere, hor, errekaren bestaldean, jentartean, bere elkartasun beroa eta benetakoa helaraziz. Bai, lehengusua dut bera eta zer gutxiago! Bai? Kargu horrekin, gutxiagorekin ni joango ote nintzaion? Telefonoz beharbada berba xamurren ba-

tzuk, baina halako kargudunak, politikamente korrekto izanez, halako karguak ematen duen aurarekin eta aitzakian... inorengana hurbilduko ote nintzen ni?

Ez naiz eta ez naiz izango sekula inongo Bikario Nagusi, baina bakoitzak bere kargutik zer eman, zer eskaini dezakeen irakasgaia izan dut, zer ikasirik izan dut. Karguaren izenpean izkutatzea, ihesbidea aitzakia eroso bat bihur daiteke, politikamente korrektoa! Hau izan behar al da nire jokaerea euskaldun lez, gizaki lez, kristau(?) lez? Zein errega den urmaeletako ur geldien kontra teorizatzea baina ez ur lasterretan! ibilian joanean doan errekastoko ur garden lasaiak berak ere hainbat alditan egonezina eta ikara sortu ohi digu. Hau da, kargurik dugu-nean zenbat aitzaki eta hitz hutsal etikaren, zuzentasunaren, orekaren, ...ren izenean! Karguak inork zaindu baditu, gorde baditu, hori eliza izan da. Aitzakia barik han izan zen Bikarioa. Egongo ote nintzen ni?

Gure familian neba-arreba ugari gara eta eskatzeko sutondotik irten ahala eta bakoitzak bere osagarriarekin, senar edo emazte, eta hauen seme-alabak eta... zenbakitan ugarituz joan gara baina baita ideologi, bizitzeko era eta pentsamolde aniztasunean ere, zorionez. Maiz izan ditugu gure eztabaidak, muturraldiak, tirabirak,... Aipatu igande dontsu horretan denak, denak izan ziren han, erreka bestaldean. Bai odolak deitzen omen du. Odolak bere deira bat egiten omen du. Bai? Nire loba bat horrela gertatu izan balitz, halako eguraldi zoragarriarekin, izango ote nintzen nire sentimentu kimikoak transmitituguran? Bai? Ziur? Familian bertan ba omen dut halako aura... Gerediako presidente, Koruko zuzendaria.... ezebez Anttonmari! Harropuzkeria! Badut non zer ikasirik

Lanean. 2006. Adventumetik martxoko Pazkoetara bitarteko garizuma luze honetan, egunerokoan nire inguruko langileen kimika sentitu izan dut. Begiradetan, jarreretan, normalitatean, disposizioetan, berriketaldi hutsalak ekidinez, saihestuz. Zer esan ni baino goragoko(?) arduradunen jarreraz! Behar nukeen

denbora eta astia neretzat hartzeko agindua edo mezua. Zer gehiago? Hau, jarrera hau entrepresa gehienetan ez da ematen eta hontaz ere konsziente izan behar dut. Esker oneko bai goikoen begiruneekiko eta bai, zelan ez! Nire eguneroko inguruko langileen jarrera positiboa baloratzera.

Ikasi beharra izan dut, ez dakit neureganatuko dudana baina apaltasun amiñu bat on da. Zenbat on dagoen geure inguru hurbilean! Egunero dastatzen dihardugu hortik eta elefantearen gisan, hori normala balitz lez bidean goaz oinak non jartzen ditugun konturatzeke. Ni behizat horrela nator, oso ondo noalakoan... baina alboan badut, zenbat dudana ikastekorik eguneroko ekintza isil, txikiatarik !

Hau da trumoiak honetara, pentsa dezakezu. Bego! Haize zakarraldi honetan, nire kauten izan dudana zakarraldi honetan halako oldozpenak, holako gogoetak izan ditut. Nire penak, nire urradurak, nire bizipenak halakoxeak izan dira. Harrokeria saihestu guran nabil. Apaltasuna, apalagoa izan nahi dut.

Anttonmari